``Insignificando´´

Juan Pérez Agirregoikoa

2021 abe 18 - 2022 ots 23

CarrerasMugica

2019az geroztik egin ditudan azken lanen zati bat aurkeztu dut hemen, *Insignificando* izenburuarekin. Erakusketa osatzeko, multzo batu moduan funtzionatzen duten bi serie desberdin daude.
Azpimultzo horietako batek "*Great Black Chickens*" du izena, eta besteak "*American imperialism is...*". Bi horietan jorratu dira ikurra, sinboloa eta adierazle-nagusien funtzionamendu ulertezina, jendea lanean doan jartzeko ahalmena duena, denok dagoeneko jakinik hori zer zaila den. Aberriak, banderak, jainkoak, kamiseta baten koloreak, ohorea...

Honako lan hauetarako erabili ditudan teknikak arkatzez egindako marrazketa eta collagea izan dira, biak ala biak lotuta haurtzaroarekin, galera moduan, gainbalio gisa, ulertzen den ekonomiarekin, eta denbora nahita alferrik galtzearekin; ekinbide horietan aditu petoa naizela esango nuke.
Uste dut, eta xalo hutsa naiz agian, aukera tekniko egoki batek konexioaren une magikoa errazago bideratu dezakeela, beti gogoan izanda komunikazio-ahalegin guztien baitan dagoen polisemia. Edo ez, egia esan, ez zait axola, izan ere. Tira, bai, axola zait, bai.

Ezaguna iruditzen zait inpresionistek zeukaten lan egiteko modua. Aire zabalera irten, norbere burua kanpoko mundura atera, eguzkiak, aireak, elementuek eta gure gailuetako pantailek gauzak nola islatzen dituzten ikusi, eta unea harrapatzen saiatu. Une hori berehala ihesi doan arren.

Zer mekanismok eragiten du adierazle baten (bandera bat, esaterako) eta esanahi baten arteko batura, irudia, sortzen duten zentzua hain desberdinak izatea? Zerk eragiten du bata abertzalea izatea eta besteak makila batetik zintzilik dagoen koloretako trapu bat besterik ez ikustea? Kultura askok partekatzen duten boterearen sinbolo bat ala luma ugariko txori bat?
Nork esana den ez dakidan baieztapen batean ari nintzen pentsatzen; izaki hiztunok ahultasun mentalerako joera dugula zioen.
Spinozak adierazi zuenez, gure bizitzan zeinuak erreklamatzen ditugu egunero, eta zeinuen bereizgarrietako batzuk dira aldakorrak, elkarkorrak eta anbiguoak izatea.

Iruditzen zait horregatik aritzen naizela ni beti kulturaren jira-biran, aztertzen nola eragiten digun, nola eratzen gaituen, nola osatzen gaituen eta, batez ere, nola itxuragabetzen gaituen. Benetako kulturaz ari naiz, transmititzen diguten ondarea dut aztergai, gure gurasoen eta haien arbasoen egoera psikologikoak osatzen duen nahasketa hori, eta gure geroan nahiz sorlekuetan buru izango diren gizandien egoera mentala, bai eta orain ziur aski ahaztu zaidan edo ezagutzen ez dudan beste osagairen bat gehiago ere.

Horregatik, nire lana azaldu behar izaten dudanean, kulturaren aurkako borroka dela esan beharko nuke, borroka terminoa erabilita, hain zuzen, borroka kontua niretzat handi samarra dela uste dudalako. Hori idealistentzat da egokia, eta ni neure buruari inoiz helbururik jartzen ez dion horietakoa naiz, horrela ezin baitut inoiz neure burua dezepzionatu. Zeinuen zain dagoen mundu batean, nire proiektua hutsala da, baina niri balio dit.

Pd: Cervantesek bere Kixotean aipatutako pintorearekiko begirune osoz, zeinak, hain txarra izanik, oilar bat margotu ondoren esanahia sortzeko haren alboan "oilarra da" idatzi beharra baitzuen.

Juan Pérez Agirregoikoa (Donostia, 1963) Parisen bizi da, eta han lan egiten du. Arte Ederretako ikasketak egin zituen, EHUn eta Parisko Ecole Nationale Superieure de Beaux-Artsen, baita Filosofiakoak ere, Paris VIII unibertsitatean. Hainbat erakusketa egin ditu askotariko museo eta arte zentroetan: Centre d 'Art La Panera (2018) eta Artium (2017), Malmo Kosntmuseum (2015); Punk: sus rastros en el arte contemporáneo, *MACBA, Bartzelona (2015);* La ville après les applaudissements, *Pavillon Vendôme - Centre d'art Contemporain, Clichy (2014);* Forever Young, *Nürenbergeko Kunsthalle (2013); Museo Nacional Centro de Arte Reina Sofía (2012); Museum of Modern Art MUHKA, Antwerp (2008); Umeåko NorrlandsOperan, Suedia (2007);* Chacun à son goût, *Guggenheim Bilbao (2007). Bestalde, nazioartean ospe handia duten talde erakusketetan parte hartu du; honako hauetan, esaterako:* Memoria del porvenir *(MUSAC, 2021) eta* Vasos Comunicantes *(MNCARS, 2021), MG+MSUM (2020), Jakartako Biurtekoa (2015);* How to (...) things that don't exist, *Sao Pauloko 31. Biurtekoa (2014), eta Lyongo Biurtekoa (2007).* *Zenbait beka eta sari jaso ditu bere lanari esker: Gure Artea (2006), Bancaixa Pintura Saria (1997), Gaztela eta Leongo Arte Garaikidearen Museoaren (MUSAC) Sorkuntza Artistikoko Beka (2004), Mexikoko La Vaca Independiente fundazioaren Sorkuntza Artistikoko Bekako Egonaldi Artistikoa (1999) eta Banesto fundazioaren Sorkuntza Artistikoko Beka (1993).* *Lanak ditu honako museo eta bilduma hauetan: Musac (León), CGAC (Santiago de Compostela), San Telmo Museoa (Donostia), Madeira Corporate Services bilduma (Madeira), Guggenheim Bilbao, Legion Düsseldorf bilduma, MAM Sao Paulo, Iberdrola bilduma (Bilbo), MNCARS (Madril), La Panera bilduma (Lleida) eta Marugame Hirai museoa (Marugame, Japonia).*

Ikuspegi orokorra

Ikuspegi orokorra

Ikuspegi orokorra

The Great Black Chickens Nº6, 2021. Lapitza mihise gainean. 200 x 300 cm.

Black Chickens 3, 2021. Lapitza mihise gainean. 200 x 220 cm.

Black Chickens 3, 2021. Lapitza mihise gainean. 200 x 220 cm.

The Great Black Chickens Nº6, 2021
Lapitza mihise gainean
200 x 300 cm.



The Great Black Chickens Nº6, 2021. Lapitza mihise gainean. 200 x 300 cm.

Ikuspegi orokorra

The Great Black Chickens Nº4, 2021. Lapitza mihise gainean. 200 x 300 cm.



The Great Black Chickens Nº4, 2021. Lapitza mihise gainean. 200 x 300 cm.

The Great Black Chickens Nº8, 2021. Lapitza mihise gainean. 200 x 300 cm.

The Great Black Chickens Nº8, 2021 (xehetasuna)
Lapitza mihise gainean
200 x 300 cm.

The Great Black Chickens Nº8, 2021. Lapitza mihise gainean. 200 x 300 cm.

Ikuspegi orokorra

Ikuspegi orokorra

The Great Black Chickens Nº4, 2021 (xehetasuna)
Lapitza mihise gainean
200 x 300 cm.

The Great Black Chickens Nº7, 2021. Lapitza mihise gainean. 200 x 300 cm.

Ikuspegi orokorra

The Great Black Chickens Nº5, 2021. Lapitza mihise gainean. 200 x 300 cm.

Ikuspegi orokorra

American Imperialism is... Chicken, 2021. Collage mihise gainean. 130 x 195 cm. (xehetasuna)

American Imperialism is... Chicken, 2021. Collage mihise gainean. 130 x 195 cm.

American Imperialism is... The Rose Book, 2021
Collage mihise gainean
130 x 195 cm.

American Imperialism is... Butterflies and bees, 2021. Collage mihise gainean. 130 x 195 cm.

Fachita suicida, 2021
Collage mihise gainean
100 x 73 cm.

Ikuspegi orokorra

CarrerasMugica

www.carrerasmugica.com

info@carrerasmugica.com

Calle Heros 2 / E-48009 BILBAO
T. +34 944234725